


# Abarkagintza

## Eskolan egiteko ariketak





# Bisita egin baino lehen

## Santxo abarka

Ba al dakizue nor izan zen Santxo Abarka? Ikertu ezazue bere istorioa.

### “Made in China” oinetakoak

*Konpara ezazue hemen bertan egindako oinetako bat eta Txinan egindako bat:*

	BERTAKOA	MADE IN CHINA
Lan baldintzak		
Soldatak		
Erabiltzen diren materialak		
Garraio gastuak		
Ingurumenean eragina		
Kontsumitzaileentzat onura		

*Marka ezagunetako oinetakoak hartu eta non eginak diren begiratu:*

· Zenbat kilometro egin dituzte zure oinetakoek zugana iritsi arte?

.....

· Zergatik egiten dituzte leku horretan?

.....

· Hau ikusirik zer ondorioztatu dezakezu?

.....

*Markako kirol zapatila gehienak Asiako Hego Ekialdean egiten dira, bertan umeak lanerako erabiliz eskulan merkea lortzen dute:*

· Zenbat balio zuten azkena erosi dituzun kirol zapatilek?

.....

· Ba al dakizu diru horretatik %1 inguru besterik ez doala ekoizleentzat? Beraz, zenbat ordaindu diote zure zapatilak egin dituenari?

.....



• Bidezkoa iruditzen al zaizu?

.....

• Zer egin dezakegu guk hori ekiditeko?

.....


.....

C

## Bisita egin eta gero

Seguru aski Astiazaran baserrian egon ondoren abarkak egiteko gai izango zara. Eta ez hori bakarrik, larrugintzan, orokorrean ere aditua izango zarela izan daiteke. Konprobatu nahi al duzu?

Larrugintza prozesuaren pausoak eta materialak

















 Ordena itzazu larrugintza prozesuko pauso hauek, azaldu zein den pauso bakoitzaren funtza eta zein material erabiltzen den:

- 4 • Larruen tindaketa:  
Larru eta larruazalaren nahi dugun kolore modu egonkor batez finkatzea.....
- 9 • Larruazalaren zerratzea (ebaketa):  
Larruazala bi zatitan zatitzen da.....
- 3 • Beratze edo ontzea:  
Larruazala biguna geratzeko prozesua.....
- 8 • Kare-garbiketa:  
Larruazalak aurreko prozesuetan xurgatutako produktu kimikoak kentzeko.....
- 7 • Garbiketa edo bustialdia:  
Larruak lehortzean galdutako ura hartzen du eta itsatsitako odola, lokatza eta kentzen zaizkio.....
- 6 • Larruaren kontserbazioa:  
Larrua industrian erabili ahal izateko lehortzea.....
- 5 • Koipeztaketa:  
Larruaren kanpoko aldean, gantz eta bale-koipea edo arrainaren gibelaren koipea edo beste animali baten koipearen nahasketa zabaltzea espatula baten laguntzaz.....
- 1 • Depilatu (ilea kendu):  
Larruazaleko ileak kentzea, karea edo produktu kimikoak erabiliz.....
- 2 • Haragi-bereizketa:  
Larruazalean itsatsitako haragi puskek, zati koipetsuak, .... kendu, labana.....




## Artisautza hiztegia

 Lotu ezazu hitz bakoitza dagokion definizioarekin (alde batean definizioak eta bestean hitzak):

	HITZA		DEFINIZIOA
	Aiztoa		Larrua usteldu ez dadin eta erabilgarria izan dadin egiten den prozesua
	Koipetu		Handitzearen ekintza eta ondorioa
	Legamia		Koipeztatzearen prozesua
	Oin-bularra		Tresna ebakitzaila, altzairu edo burdinazko xafla aho bakarrez eta kirten batez osatua
	Taxutu		Oinaren gainaldea
	Hiltegia		Metalezko tresna puntazorrotza, larruan, goma eta b. etan zuloak edo markak egiteko erabiltzen dena
	Ondu		Edari alkoholikoak, ogia eta beste hainbat elikagai egiteko beharreakoa den hartzidura aurrera eramateko gai diren onddoen izena
	Eztena		Abereak hil eta larrutzen diren tokia
	Hantura		Zerbaiti forma edo itxura jakina eman




 Gaur egun eskuz egindako produktuak, produkzio mekanikoaren aurrean zein desberdintasun dutela azpimarratuko zenuke?

Produktio murritzagoa eskuz, baina kalitate aldetik hobea izaten da gehienetan. Hedadura gutxiago izaten du, bertakoentzat produzitzen da batik bat ez esportaziorako.

 Zer uste duzu baloratzen dela eskulangintzaz egindako produktu batean?

Kalitatea batik bat, eta beste zenbait kasutan produktu eksklusiboak edo luxuzkotzat har daitezkeela.

 Egungo artisauaketa duela mende batzuk lan bera egiten zutenak alderatuz, errekonozimendu edo balio bera dutela iruditzen al zaizu? Zein desberdintasuna dute?

Ez lehen beharrezkoak ziren lanabesak egiten zituzten eta arruntak izaten ziren lan batzuk (errementariak, larrugintzan zebiltzanak, okinak, ...). Egun, horietako langintza batzuk ia desagertutako lanak dira eta egiten dituzten elementuak dekoraziorako edo kapritxoak bihurtu dira. Lanabes asko kanpotik ekarrita eta merkeagoak dira eta antzeko funtzioak bete ditzaketen askoz ere gauza gehiago dago, beraz eskulangintzan aritzen direnak, askotan bohemiotzat edo aspaldiko lan batzuen azken "erromantiko" tzat hartzen dira batzuetan.

"Baserria, natur eskola bizia" programak baserriak, baserritarrak, beraien tailerrak, baratzak, produktuak, ... ezagutzeko aukera ematen dizu, eta gainera beraiekin ikasi eta zu zeuk ere kandelak, abarkak, ogia eta beste hainbat gauza egiteko gai izango zara. Animatu eta joan zaitez zure inguruan dituzun beste baserri eta baserritar ezagutzera!